

C. 1866

Carlos

Haes

Lekeition



Carlos Haes (1829-98) jatorriz belgiarra zen, baina txikitan Espainiara etorritakoa. 1857an San Fernando Arte Ederretako Paisajeko katedra lortu zuen eta 1860rako akademikoa zen. Maisu -eta pintore- oso estimatua izan zen.

Gurean 1866 aldean egon zen -agian 62an ere bai-, baina behin baino gehiagotan bisitatu eta pintatu zuen Euskal Herria. Donibane Lohitzune aldeko koadro dezente ditu eta azken urteetan Algortan igarotzen zuen uda.

Paisaia generoa berriztu zuen arren ez zen frantsesen antzera pleanirista izan: zirriborroak kalean egiten zituen baina koadroa tailerrean amaitzen zuen. Hori da irakurri dudana eta irakurri izan dut baita gurean -eta beste leku batzuetan- egin zituenak tamaina txikikoak zirela bidaiatzeko pintura-maletxoan kabitzeko. Baieztapenok egiak badira, zer ote dira Lekeitioko koadroak, amaitutako obrak ala zirriborroak? Edozein kasutan emaitza bikaina izan zen. 1899an, Estatuari utzi zizkion 200 obratik gora eta beste batzuk, erakutsi ziren urte hartako Arte Ederretako Erakusketan (La Epocaren arabera *299 estudios al oleo y multitud de dibujos y aguafuertes*).



SALA DE HÀRE.—BOSTIAYES DE OLAS EN LA BAYONA.—(STR. 10 DEL CATALUÑA.)
MADRID.—EXPOSICIÓN GENERAL DE BELLAS ARTES DE 1899.

1900ean Arte Modernoko Museoak (Museo de Arte Moderno), 1898an zabalduak, katalogoa atera zuen eta han agertzen ziren Haesek emandako obrak: *Catálogo provisional del Museo de Arte Moderno*, Madrid, 1900, seg. edición (sign. SG PRA. Cat. Col. 75). Katalogoan Lekeitio eta inguruetakoko 10 obra agertzen ziren, gaur egun Prado Museoan horrenbeste geratzen dira, baina HANDIAK ere erratu egiten dira batzuetan. Hor dago koadro bat Lekeitio agertzen dena eta Pradoko Museoak *Acantilados (Guethary)* izendatzen duena.

Zelan dakit Lekeitio dela? Batetik, *La Ilustración Española y Americana* aldizkariko

1899-5-8ko zenbakian *Rompiente de olas en Lequeitio* izenez agertu zelako (1899ko erakusketan, Haesen salan 10.ena). Bestetik, Artzabalera joan eta argazki bera atera dudalako. Azkenik *Acantilados* izenburua ez delako egokia, itsaslabarrak ez baita ikusten, Artzabaleko haitzak eta San Nicolas irla atzealdean baino.

Zer gertatu zen? Batetik tamaina bera zutela biek -39X60 cm- eta katalogoan bata bestearen alboan zutela: 1900eko katalogoan: 218 *Acantilados* (Guethary) Alto 0,39 metros. Ancho 0,60 metros eta 219 *Rompiente de olas* (Lequeitio). Alto 0,39 metros. Ancho 0,60 metros. Bestetik kostaldea ez dala erraza bereizten ezagutzen ez duenarentzat.

Gaur egun Pradoko museoan hurrengo obrak daude (1866-72): *Rocas de Lequeitio*, *Acantilados (Lequeitio)*, *Playa de Carraspio (Lequeitio)*, *Rompiente de olas*, *Costa de las cercanías de Lequeitio*, *Playa de Lequeitio*. *Atalaya*, *Playa de Carraspio*, *Rompientes (Lequeitio)*, *Rocas de Otoyó (Lequeitio)*, eta *Rocas de Santa Catalina*. Hamar olio guztira. Eta grabatu bat: *Lequeitio (Peñascos de la costa de Lequeitio)*, hau 1862 ingurukoa.



Garraitz irla Artzabaletik. (2019ko udaberria)

Guk hemen egin duguna Javier Landeras argazkilariak ere egin zuen: "Pintando al genio del lugar, fotografiando la mirada del artista" Javier Landeras. Haru Asaki Editions, 2017



219 Rompiente de olas en Lequeitio (gaur egun *Acantilados* (Guéthary), hacia 1881, 38'5x 61, P005647)

La *Ilustración Española y Americana* aldizkaria behin baino gehiagotan agertuko da liburu honetan. Errazena, Sarean sartu eta hemeroteca digital batetik bajatzea izaten da, baina kalitatea ez da beti ona izaten. Zorionez Lekeitio berton daukagu Recreativa elkartearen liburutegitxo bat orduko aldizkariekin. Zenbaki edo ale hau hangoa da



231 Costa de las cercanías de Lequeitio 31x40 (hau *La Ilustración Española*-n agertu zen)
(gaur egun Pradoko webgunean, Costa de las cercanías de Lequeitio, hacia 1866, P007483)



252 Atalaya 25x35 (gaur egun Pradoko webgunean,
Playa de Lequeitio. Atalaya, hacia 1872, P004383)

210 Playa de Carraspio
33x41 (gaur egun Pradoko webgunean, Playa de Carraspio (Lequeitio),
hacia 1872, P007484)



169 Rocas de Lequeitio 15x43 cm (gaur egun Pradoko webgunean,
Rocas de Lequeitio, hacia 1866, P006606)



337 Rocas de Santa Catalina 25x35 (gaur egun Pradoko webgunean,
Rocas de Santa Catalina, hacia 1872, P004384)






302 Rocas de Otoy 39x50 (gaur egun Pradoko webgunean, Rocas de Otoy (Lequeitio), 1866-1872, P007479)



Rocas, Lequeitio 25x36, 1872. Enkantean saldutakoa 2017an



291 Rompientes 26x41 (gaur egun Pradoko webgunean, Rompientes (Lequeitio), hacia 1872, P006155)



Lequeitio (Peñascos de la costa de Lequeitio), hacia 1862



258 Playa de Carraspio 22x42 (gaur egun Pradoko webgunean, Playa de Carraspio, hacia 1866, P004379)



199 Acantilados 26x36 (gaur egun Pradoko webgunean, Acantilados (Lequeitio), hacia 1866, P007392)